# 2024ko Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile finkoen LEKUALDATZEA

LAB

1974-2024 • ZABALTZEN

# LAB SINDIKATUAK EGINDAKO LANAREN BALORAZIOA

- LAB sindikatuak 2016 eta 2018an Lekualdatzearen araudia eta matrikulazioaren gora beheren aurrean lanpostuen kopurua mantentzeko akordioa sinatu zuen aldebakarrez.

- 2023an LAB sindikatuak eskatuta salbuespenez kontsolidazio prozesuaren meritu bidezko lehiaketan eskaini behar ziren lanpostuak lehenago finkoei eskaini zitzaizkien.

- LABek Akordio laboralean sinatu bezala, lanpostuen kontsolidazio prozesuaren ostean, 2024an ere leku aldatzearen deialdia egingo da, nahiz eta lan hitzarmenean bi urterik behin egingo dela zehazten den.

- Bestalde, LABetik eskatu bezala urtero LAL prozesua abiatu beharko litzateke LPZ ahalik eta errealena lortzeko asmoz eta desplazamendu kopurua murrizteko.

1974-2024 • ZABALTZEN

# ZER DA LEKUALDATZE LEHIAKETA?

Hezitzaile finkoen atxikipena aldatzeko prozesua da.

**DERRIGORREZ** parte hartu behar dute:

- Lanpostua amortizatzen zaien finkoek (deialdiaren 2.e. art.).
- Borondatezko edo bateraezintasunagatiko eszedentziatik itzuli eta behin betiko atxikipena eskuratu behar duten langileak (2.c. eta d. Art.).

**BORONDATEZ** parte hartu dezakete:

- Nahitaezko eszedentziatik itzuli eta bere atxikipena aldatu nahi duten langileak (2.b. art.).
- Bere atxikipena aldatu nahi duten hezitzaileak (2.a. art.).

1974-2024 • ZABALTZEN

# EGUTEGIA

| | |
|---|---|
| **EKAINAK 25** | LAL deialdia argitaratu |
| **EKAINAK 26 eta 27** | LAL **borondatezko eskaerak amortizatua** izateko |
| **EKAINAK 28** | LAL **derrigorrezko partaideen behin-behineko zerrenda** argitaratu (puntuaziorik gabe)<br>Zerrendaren aurkako erreklamazioak |
| **UZTAILAK 1** | LAL **derrigorrezko behin-betiko zerrenda** (puntuaziorik gabe) |
| **UZTAILAK 1etik 4ra** | LAL **eskabideak eta merituak aurkezteko epea** |
| **UZTAILAK 5etik 9ra** | LAL batzordeak, parteaide bakoitzari bere puntuazioa esleitu |
| **UZTAILAK 10** | **Partaideen behin-behineko** zerrendak lortutako **puntazioarekin** |
| **UZTAILAK 11tik 15ra** | **Behin-behineko zerrendaren erreklamazioak** |
| **UZTAILAK 17** | LAL **partaideen behin-betiko zerrenda puntuazioarekin** eta **behin-behineko esleipena** |
| **UZTAILAK 19etik 22ra** | LAL **behin-behineko esleipenen aurkako erreklamazioa** eta **ukoak** aurkezteko epea |
| **UZTAILAK 26** | LAL **Behin-betiko esleipena** |
| **UZTAILAK 29** | **Gorako helegiteak** aurkezteko epea (abuztuaren 19ra arte) |

# EKAINAK 25 - DEIALDIAREN ARGITALPENA

**Deialdia argitaratu da prozesuari hasiera emanez http://www.haurreskolak.eus/lista_noticia?id_noticia=571**

**Deialdia** eta **egutegia** eranskinetan daude.

- Oinarriak: hautagaien baldintzak, lehenespen eskubidea, eskabideak,....
- I. Eranskina: Lekualdatze lehiaketan eskaintzen diren lanpostuak.
- II. Eranskina: Derrigorrez parte hartu behar duten hezitzaileak.
- III. Eranskina: Lehenespen eskubidea. Amortizatzen diren plazak.
- IV. Eranskina: Norberaren plaza borondatez amortizatzeko – eskaera.

# EKAINAK 26 eta 27 -BORONDATEZ AMORTIZATUA IZATEKO ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA (III eta IV. Eranskina)

**Nork aurkeztu dezake amortizatua izateko borondatezko eskaria?**

- III. eranskinean agertzen diren haurreskoletako behin-betiko hezitzaileek, nahiz eta bere plaza amortizatua ez izan. Horrela, langile horiek borondatezko amortizatuaren izaera eta lehenespen eskubidea eskuratuko dute (1. txandan). Prozesu osoa bukatu beharko dute.
- Ez da onartuko borondatez amortizatzeko eskaerarik, hutsik dagoen lanpostua amortizatu behar den kasuetan.
- Eskari bat baino gehiago baldin badaude lan hitzarmeneko 13.artikulua aplikatuko da.

**Nola egin eskaria?**

- IV. eranskina **bete, sinatu eta**

lal@haurreskolak.eus helbidera **bidaliz**.

1974-2024 • ZABALTZEN

# EKAINAK 28 – DERRIGORREZKO PARTAIDEEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDA ETA ZERRENDAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOAK

- Borondatezko eskariak jaso ostean behin-behineko derrigorrezko hautagaien zerrenda argitaratuko da, puntuaziorik gabe.

- Zerrendaren aurkako erreklamazioak egiteko egun berean aurkeztu ahal izango dira, lal@haurreskolak.eus helbidera.

- **UZTAILAK 1**ean: erreklamazioen osteko DERRIGORREZKO PARTAIDEEN **BEHIN-BETIKO** zerrendaren argitalpena izango da.

1974-2024 ● ZABALTZEN

# UZTAILAren 1etik UZTAILAK 4ra (biak barne) ESKARIAK eta MERITUAK AURKEZTEKO EPEA

Nortzuk aurkeztu behar dituzte eskabide eta meritu hauek?

- Plaza amortizatu zaien behin betiko zerrendako langileek.
- Borondatezko edo bateraezintasunagatiko eszedentziatik itzuli eta behin betiko atxikipena derrigorrez eskuratu behar duten langileek (II.eranskina).
- Borondatez parte hartu nahi duten langileek.

Zelan aurkeztu behar da?

- Modu telematikoan jasotako eskabide-orria betez eta merezimenduen egiaztagiriak erantsiz.

# UZTAILAren 1etik UZTAILAK 4ra (biak barne) ESKABIDEAK eta MERITUAK AURKEZTEKO EPEA

**Merezimenduak:**

- Aintzinatasuna atxikipena duen haurreskolan (ofizioz)
- Aintzinatasuna Haurreskolak Partzuergoan (ofizioz)
- Koordinatzaile kargua (ofizioz)
- Merezimendu akademikoak (aurkeztu beharrekoak)
- Ikasketa tituluak eta 0-3 zikloari zuzendutako formazio homologatua.

ADI! Partzuergoak emandako formazioak ez du zenbatuko, ezta 10 ordu baino gutxiagoko formazio saioak ere (deialdiaren 8.3. art.).

## UZTAILAK 10ean BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK LORTUTAKO PUNTUAZIOAREKIN

Lehenespen eskubidearen arabera antolatutako zerrendak argitaratuko dira.

## UZTAILAren 11etik 15ra (biak barne) BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAREN AURKAKO ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEKO EPEA

- Behin-behineko zerrendan dauden hezitzaileek erreklamazio eredua jasoko dute modu telematikoan.
- Eredua beteta, *lal@haurreskolak.eus* helbidera bidali behar da.
- **Erreklamazio epean ez dira merezimendu berriak onartuko.**

1974-2024 • ZABALTZEN

# UZTAILAK 18
# PARTAIDEEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA (puntuazioarekin)

- Erreklamazioak ebatzirik, pertsona onartuen eta baztertuen zerrenda behin betikotuko da.

- Behin betiko zerrendak, Haurreskolak Partzuergoaren web-orrian argitaratuko dira.

- Argitaratu eta hurrengo egunetik, zerrenda horren kontrako gorako helegitea aurkezteko hilabeteko epea izango da, Eibarko egoitzan edota 39/2015 legearen 16.4 artikuluan zehaztutako moduan.

# UZTAILAK 19tik 22ra
# Behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak eta ukoak

- Behin-behineko atxikipenaren kontra erreklamazioak aurkeztu eta lanpostuari uko egiteko.

- Eredu bera erabiliko da uko uko egiteko zein erreklamazioa aurkezteko.

- Bakoitzak bere helbide elektronikoan jasoko du, zerrendak argitaratu ondoren. Haurreskolak Partzuergoari bidali beharko zaio beteta eta sinatuta.

1974-2024 ● ZABALTZEN

# UZTAILAren 26an LEKUALDATZEAREN BEHIN-BETIKO ESLEIPENAREN ZERRENDA

•Haurreskolak Partzuergoaren web orrialdean argitaratuko da.

•Argitaratu eta hurrengo egunetik, zerrenda horren kontrako **gorako helegitea** aurkezteko epea **uztailak 29tik abuztuak 19ra** izango da, Eibarko egoitzan edota 39/2015 legearen 16.4 artikuluan zehaztutako moduan.

# 2024eko IRAILAREN 2an

•Atxikipen berrien jabetza egingo da haurreskola berrian.

1974-2024 • ZABALTZEN

# KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

**Parte hartzera derrigortuta daudenek** (Deialdiaren 2.art c, d eta e puntuetan)

- Ezin diote prozesuari uko egin eta bukaera arte parte hartu behar dute.

- Derrigortuta daude plaza bat eskuratzen eta behar beste haurreskola aukeratzen ez badituzte, ofizioz esleituko zaie, hutsik geratutako plazen artean, haurreskolak kokatutako udalerrien hurrenkera alfabetikoan “G” letratik abiatuta esleituko zaie, haurreskola txikienetik handienera.
- Aholkua: norberaren lehentasunaren arabera ahalik eta haurreskola gehien aukeratzea.
-

**Borondatez parte hartuko dutenak**

- Aukeratutako plazarik esleitu ezean, dauden haurreskolan gel
- Aholkua: Soilik interesatzen zaizkien plazak aukeratzea.

1974-2024 • ZABALTZEN

## ARABA

**AMAIA**

**Fermin lasuen 13, behea**
**01001 Gasteiz**

**Tfn:689686207**

**haurreskolakaraba@lab.eus**

## BIZKAIA

**IRATXE ETA LEIRE**

**Rekalde zumarkalea 62, behea**
**48010 Bilbo**

**Tfn: 666771196**
**Tfn: 666770982**

**haurreskolak.biz@lab.eus**
**i.belarrinaga@lab.eus**

## GIPUZKOA

**HIART ETA ITZIAR**

**San Bladi 1, behea**
**20013 Donostia**

**Tfn: 666775484**
**Tfn: 674094543**

**haurreskolak.gip@lab.eus**
**haurreskolak.gip1@lab.eus**

Edozein zalantza, iradokizun, arazo...izanez gero, LAB Sindikatura deitu konfiantza osoarekin eta berehala konpontzen saiatuko gara. Konsulta presentziala izatea nahi izatekotan deitu hitz ordua adosteko.

**Bulego ordutegia:**
Astl-Ost: 9:00-14:00// 15:00-18:00
Ostr: 9:00-14:00

Haurreskolak Partzuergoko eta irakaskuntza sektore osoaren bestelako informazio guztia eskuragarri duzu hurrengo web orrialdean:
***https://irakaskuntza.lab.eus/haurreskolak-0-3/***

***SARE SOZIALAK***
X: LABHaurreskolak || Facebook: LAB HAURRESKOLAK

Banatuz eraldatu!